

Llega el **contenedor gris**

Ikastolaren **proiektu** berria

**Reforma de las piscinas**



Babes ofizialeko  
etxebizitzak  
**Gurutze Santun**



# AGURRA

Duela urtebetetan gure buzoietan izan gabe, **Kaixo udal aldizkaria** berreskuratzea erabaki dugu, jatorrian izan zuen funtsa islatu nahian, hau da, bereziki udal informazioa ematen duten edukiak, **urretxuar** guztion interesa erakarriko dutenak. Filosofia horri jarraituz, lerro hauen bitartez aldizkaria prestatzen parte hartu nahi duten interesatu guztiak animatu nahi ditut. Lau hilabeteroko aldizkari honen arrakasta horien baitan egongo da neurri haundi batean behintzat.

**Urretxuk** badu eduki beharreko gaitasuna, konplexurik gabe Urola Garaia eskualdeko aktibazio ekonomikoaren motore garrantzitsu izateko. Horixe da gaur egun gure helburua, eta gainontzeko alderdiak, erakundeak eta herritarrok bidelagun izateko beharra planteatzen dugu.

**Urretxuk** erronka zoragarriak ditu aurretik. Ez dugu iraganean geratu nahi; nahia dugu desadostasunak saihestu eta elkartzten gaituen horretan indarra jarri, urretxuarren ongizatean, alegia. Bultza egitea eta pausua markatzea tokatzen zaigu, baina ahalik eta konplizitate eta gardentasun haundiarenarekin egin nahi dugu.

Orrialde hauetan **Urretxu** garatzeko jarri ditugun erronkak agertzen saiatuko gara: Irimoko eremuari irteera ematea. Herritarren parte-hartzea erakundetzea gobernu irekiaren estrategia baten barruan. Udal zerbitzuak hobetzea. Oinordetzan hartu dugun zorpetze maila kentzea. Gizarte zerbitzuen estaltze maila murizketarik gabe mantentzea. Etxebizitza berriak, horietatik kopuru haundi bat babes

ofizialekoak, Hiri Antolamendurako Plan Orokorra onartzea. Hiri hondakinak biltzeko sistema jasangarria ezartzea. Bizikidetzarako Udal Plana onartzea. Goiko auzoetarako irisgarritasun azterlana eguneratzea. **Urretxuren** irudia sustatzea. Iparragirre 2020 proiektua...

Urtebetetan gure buzoietan izan gabe, **Kaixo udal aldizkaria** berreskuratzea erabaki dugu, jatorrian izan zuen funtsa islatu nahian, hau da, bereziki udal informazioa ematen duten edukiak, **urretxuar** guztion interesa erakarriko dutenak. Filosofia horri jarraituz, lerro hauen bitartez aldizkaria prestatzen parte hartu nahi duten interesatu guztiak animatu nahi ditut. Lau hilabeteroko aldizkari honen arrakasta horien baitan egongo da neurri haundi batean behintzat.



**Jon Luqui**  
Alkateda

Hace más de un año que asumimos el compromiso de dirigir el Ayuntamiento de **Urretxu**. Lo hicimos con la mayor ilusión y con una perspectiva abierta para tejer entre todos y todas el futuro de nuestro municipio. Durante este tiempo ya hemos dado varios pasos. No obstante, nos faltan los más difíciles en una coyuntura económica compleja. **Urretxu** tiene los mimbres necesarios para posicionarse sin complejos como un motor relevante de la reactivación económica de la comarca de Urola Garaia. Ese es actualmente nuestro faro y planteamos la necesidad de que el resto de partidos, instituciones y ciudadanos y ciudadanas nos acompañen en esta travesía.

**Urretxu** tiene por delante retos apasionantes. No queremos anclarnos en el pasado; preferimos evitar desencuentros y poner el acento en lo que nos une, que es el bienestar de los y las urretxuarras. Nos toca empujar y marcar el paso, pero lo queremos hacer con la máxima complicidad y transparencia.

En estas páginas vamos a intentar plasmar los retos que nos marcamos para el desarrollo de **Urretxu**: Dar una salida al área de Irimo. Institucionalización de la participación ciudadana en el marco de una estrategia de gobierno abierto. Mejora de los servicios municipales. Eliminación del nivel de endeudamiento heredado. Mantener sin recortes el nivel de cobertura de los servicios sociales. Nuevas viviendas, un gran número de ellas de VPO. Aprobar un Plan General de Ordenación Urbana. Adoptar un sistema de recogida de residuos urbanos sostenible. Aprobar un Plan Municipal de Convivencia. Actualizar un estudio de accesibilidad para los barrios altos. Impulsar la imagen de **Urretxu**. Proyecto Iparragirre 2020...


Tras más de un año de ausencia en nuestros buzones, hemos decidido recuperar la **revista municipal Kaixo**, tratando de plasmar la esencia de lo que fue su origen, esto es, contenidos principalmente compuestos por información municipal y que atraigan el interés de todos los y las **urretxuarras**. Siguiendo con esa filosofía, desde estas líneas quiero animar a todas aquellas personas interesadas en participar en la elaboración de esta revista a que lo hagan. El éxito de esta revista cuatrimestral dependerá en gran medida de ellos.



**Kaixo udal aldizkarian  
parte hartzen anima zaitez !**

partaidetza@urretxu.eus

# INDICE

	<b>RETOS URRETXU 2019</b> 4-5	<b>OPINIÓN DE LOS PARTIDOS</b> 6
<b>BATZORDEEN LEGITURA</b> 7	<b>LABURRAK</b> 8-9	<b>ETXEBIZITZAK URRETXUN</b> 10
<b>ACCESO A LAS VPO</b> 11		<b>ENTREVISTA MONTSE ALKORTA</b> 12-14
<b>GIZARTE EKINTZA ETA ADINEKOAK</b> 15	<b>SANTA ANASTASIA JAIAK</b> 16	
<b>PRESUPUESTOS 2017</b> 17		<b>URRETXU ETA SWARZENBRUCK 25 URTE</b> 18
<b>LLEGA EL CONTENEDOR GRIS</b> 19	<b>REMODELACIÓN DE LAS PISCINAS</b> 20-21	
	<b>KIROLAK</b> 22	<b>DENBORAPASA</b> 23

Konposaketa eta inprimaketa:  
**20comunicación**  
marka de internet

Kopurua:  
3.500 Ale

Ez bazara **Urretxun** bizi eta **KAIXO** aldizkaria jaso nahi baduzu, eman zure helbidea **943 03 80 88** telefonoan edota helbide elektronikoa: [aizpuru.ur@urretxu.eus](mailto:aizpuru.ur@urretxu.eus)

Si no vives en **Urretxu** y quieres recibir la revista **KAIXO** en tu buzón, déjanos tu dirección en el teléfono: **943 03 80 88** o bien escríbenos a: [aizpuru.ur@urretxu.eus](mailto:aizpuru.ur@urretxu.eus)

[www.urretxu.eus](http://www.urretxu.eus)

**¡ Anímate a colaborar  
con la revista municipal **Kaixo** !**  
**partaidetza@urretxu.eus**


# Retos Urretxu 2019

La meta de este Equipo de Gobierno es dar respuesta a las **NECESIDADES** y **EXPECTATIVAS** tanto de **URRETXUARRAS** y **VISITANTES**, como de todos aquellos/as **PROFESIONALES** que estén interesados en ejercer su labor en nuestro municipio.

Ellos y ellas son el **eje central** de la prestación de unos **servicios públicos** municipales **eficaces** y **eficientes** mediante un **equipo** humano **profesional** y orientado a la excelencia y a la innovación.

1

**Actividad económica,** desarrollo económico y **empleo:** Eje de **máxima prioridad** en coordinación con otras **entidades** supralocales.



2

Rigor económico y **transparencia** en la gestión municipal. **Mejorar** nuestra **capacidad** de **recaudación**, saldar deudas pendientes y **política de 'deuda cero'**.



3

**Desarrollo urbano armónico y sostenible.**

Dentro de un marco de **crecimiento** y **modernización** sostenible con respuesta ágil y con un **plan de mejora** en los servicios.



4

**Inversión pública** en proyectos estratégicos. **Consensuar** un acuerdo amplio para **relanzar** los **principales proyectos**.



5

**Justicia Social**

**Garantizar la atención social** a las personas y colectivos **más vulnerables**, aplicando los principios de **igualdad** y **solidaridad**.

6

## **Señas** de identidad de **Urretxu**

**Urretxu** es un municipio euskaldún, con una **gran implicación** y **participación** de los/las urretxuarras en las **actividades culturales, deportivas, sociales** y **solidarias**.



**Descarga el documento** completo:

Castellano



Euskera



El **Ayuntamiento de Urretxu** ha identificado **77 acciones** que **desarrollarán** dichos retos, en un proceso que sigue abierto a la identificación de **nuevas necesidades**.

Además **cada uno** de ellos tiene asignado un **presupuesto** y un baremo del **grado de cumplimiento**.

## Ardatz eta helburu estrategikoak

1

Jarduera ekonomikoa, garapen ekonomikoa eta enplegu.

2

Zorrotzasan ekonomikoa eta gardentasuna udalaren kudeaketan.

3

Hiri-garapen harmonikoa eta iraunkorra.

4

Inbertsio publikoa.

5

Justizia soziala.

6

Urretxuren nortasun-zeinuak sustatuko ditugu.

## Opinión de los partidos



Desde **EAJ-PNV** prometimos un plan de legislatura que marcará las prioridades de nuestra gestión.

Y así lo hemos hecho. Tenemos un instrumento de trabajo vivo y actual, pero sobre todo, muy práctico.

Concretamos acciones dentro de unos ejes que nos guiarán durante la legislatura: prioridad a la creación de empleo y actividad económica, justicia social, rigor económico y transparencia, desarrollo urbano armónico e impulso de nuestras señas de identidad.

Explicamos el qué, el cuándo y el porqué de lo que vamos a hacer, y lo que es más importante, por primera vez en Urretxu, hay un plan, que tiene un sistema muy sencillo para controlar su ejecución (o no) por la oposición y los y las urretxuarras.

*Anímate y compruébalo.*

El **PSE-EE** de Urretxu colabora en el Plan de Legislatura ya que en él se recogen los objetivos, proyectos y mejoras coherentes que garantizan la calidad de vida de la ciudadanía, fomentan una cultura participativa, cívica y solidaria e impulsan un desarrollo sostenible. No obstante, no sólo vale con la elaboración del plan de legislatura.

Es necesario desarrollar un plan sistemático de seguimiento para poder llevar a cabo las modificaciones y correcciones pertinentes. De esta forma cumpliremos con los objetivos establecidos consiguiendo un Urretxu mejor.

*Se solicitó opinión sobre el plan estratégico a los partidos políticos con representación municipal y estos son los textos recibidos.*

# BATZORDEEN

## EGITURA

BATZORDEA	BILERAK	PRESIDENTEAK
Tokiko Gobernu Batzordea	Hilaren 2. asteartean, 19.00etan eta 4. ostegunean, Udalbatzaren ondoren.	Jon Luqui Albisua (lehendakaria) Itziar Agirre Berriotxoa Igor Zubillaga Aguado - EAJ Jon Albisua Garmendia Maialen Fidalgo Mendizabal  Gonbidatuak: gainontzeko zinegotzi guztiak
Ogasuna	Hilaren 3. astelohenean 19.00etan	Itziar Agirre (lehendakaria) (EAJ)
Hirigintza-plangintza eta hirigintzako kudeaketa	Hilaren 2. eta 4. astelohenetan 19etan	Igor Zubillaga (lehendakaria) (EAJ)
Obrak, zerbitzuak, mugikortasuna, Trafikoa eta ingurumena	1. eta 3. astelohenetan 18.30etan	Jon Albisua (lehendakaria) (EAJ)
Landa garapena	Hilaren 2. asteazkenean 18.30etan	Jon Luqui (lehendakaria) (EAJ)
Gizarte ekimena	Hilaren 1. eta 3. asteazkenetan 19.00etan	Maialen Fidalgo (lehendakaria) (EAJ)
Sustapen soziokulturala	1. eta 3. ostegunetan 18.30etan	Jon Luqui (lehendakaria) (EAJ)
Udal-antolamendua. Partehartze eta Hizkuntza Politika	Hilaren 1. astelohenean 19.00etan	Jon Luqui (lehendakaria) (EAJ)

# Berriak

**Udalak** Gizarte Ekintza eta  
**Kontu-hartzailletza birkokatu** ditu


Urretxuko udaleko hainbat zerbitzutan egindako lanak amaituta, kontu-hartzailletza eta diru bilketa eta Gizarte Ekintzetako bulegoak behin betiko zero solairuan kokatuko dira, hau da, Iparragirre kalearen pare gelditzen den solairuan.

Solairu osoa birmoldatu da instalakuntzak modernizatzuz, urretxuarrei ematen zaizkien zerbitzuak hobetze aldera.

Udaltzaingoaren lekua egokitutostean, Kontu-hartzailletza eta Gizarte Ekintza zerbitzuetan eman diren lan hauekin duela urte batzu Udaletxearen hasiziren lanei amaiera ematen zaie.

Udaletxearen sarrera Abenida kaletik izango da, nahiz eta Iparragirretik une berezietan ere irekiko den. Udalak harrerarako ordutegia mantentzen du, astelehenetik ostiralera 8etatik 14ak bitartean.

**Telefonoak** honako hauek  
dira: **Gizarte Ekintza**  
( 943038083 ) eta  
**Kontu-hartzailletza**  
( 943038087 )



## Obras en Hogar del Jubilado y Centro de Día

El edificio que alberga el **Hogar del Jubilado** y el **Centro de Día** ha **cambiado de aspecto**, puesto que se han dado un repaso a la fachada, con nueva pintura, además de **realizar** varias **mejoras** en el techo y en el interior.

Además, en el **exterior** se han habilitado unos **accesorios** para fomentar el **ejercicio**, de hecho, el **programa TIPI-TAPA** ya ha hecho uso del equipamiento.

## Agerre **baserriko** bidea **konponduta**



**Bidea** oso egoera okerrera egin **duenez** azken urteotan, **Urretxuko udalak** Agerre baserrira doan bidea konpondu du. **Lanak Lurkide Hondalanak** enpresak burutu zituen Foru Aldundiaren **%55eko laguntzarekin**. Datorren urtean beste bide bat konponztea ekingo dio udalak.

## 17 jóvenes participaron en el primer 'Campo de Trabajo' de Urretxu

Del 1 al 15 de agosto un total de **17 jóvenes** de diversa procedencia participaron en el primer **Campo de Trabajo** que se ha desarrollado en Urretxu bajo el programa dirigido por la dirección de **Juventud** del Gobierno vasco. Los jóvenes, que se alojaron en el **albergue de Santa Barbara**, **trabajaron acondicionando el denominado laboratorio de Sarralde**.

## Congelación de tasas salvo aguas y servicios deportivos

El **Ayuntamiento de Urretxu** aprobó las **ordenanzas fiscales** para el **ejercicio 2017** con un criterio general de congelación de las mismas **excepto la tasa del agua** que se incrementa en un 2% y los **servicios deportivos**, en un 5%.

Según explicó la **concejal de Hacienda, Itziar Agirre**, la **subida** en la tasa del **agua** atiende a la **propuesta** del servicio de aguas **Aquarbe**, mientras que la de las **instalaciones deportivas** responde a que el **precio de licitación** del nuevo contrato de servicios deportivos debe aumentarse para que se pueda **hacer frente** al costo de **personal** derivado del mismo.

Además de estas excepciones al criterio general de congelación de las tasas municipales, el **Ayuntamiento** ha **aprobado** varias **bonificaciones** en diversos conceptos a **personas con minusvalía, mayores o familias numerosas**.

# De nuevo **viviendas** en **Urretxu**

**10 años** desde la  
**última promoción**  
**de pisos**

Entre **50 y 60 VPO**  
podrán construirse  
en **Gurutze Santu**

Además, **124 libres**  
en **Gurutze Santu**  
y **Ormazabal**



Eremu honetan **140 edo 150** etxebizitza eraikitzeko aukera izango da. Horietatik **88 etxebizitza** libreak izango dira eta gainontzekoak, 50 edo 60, babestutakoak. Lehenengo fase batean 44 etxebizitza libre eraikitzen ari da promotorea **Gurutze Santun**.

Bestetik, **Urretxuko Udalak** Etxebiderekkin urratsak eman zituen, eremu hortan eraikiko diren babestutako etxebizitzen esleipen prozesua ahalik eta dinamikoa izateko. Horretarako, Udalak joan zen urtean izena eman zuten pertsona guztiekin eta interesa izan dezaketen beste herritarrekin bilera ireki baterako deialdia egin zuen abenduaren 15ean. Bertan, promotoreak eraikiko diren etxebizitzen ezaugarriak azalerazi zituen eta **Udalak** aldiz esleipen prozesuaren berri eman zuen.

Azken **10 urteetan** babestutako etxebizitzak eraikitzeko herrian sortu den itxaropenari erantzun nahi du Udalak. **Gurutze Santu** eremuko babestutako etxebizitzatan interesa duten pertsona guztiekin Etxebiden eman beharko dutela izena (ikus hurrengo orrialdea).

## Ormazabal

Lehen legealdian kudeatutako egitasmoa da Ormazabal eremuko. Bertan **36 etxebizitza** libre eraikintzen ari dira, 63 garaje eta 34 trasteleku.



## Pasos para el **acceso** a las **VPO** de **Gurutze Santu**

- 1** Estar **inscrito en Etxebide** antes del **15 de enero** de 2017.
- 2** Realizar la **solicitud** en el Ayuntamiento de Urretxu **entre el 15 de enero y el 15 de mayo** de 2017, ambos inclusive, de 9 a 14 horas. **Junto a la solicitud** deberán **adjuntar la documentación requerida** por las bases aprobadas.

### Número de **VPO** a adjudicar

- **2 viviendas** para personas con **movilidad reducida**.
- **20 viviendas** para el **resto**.
- Si hubiera **más demanda**, el promotor podrá **construir hasta** aproximadamente **53 VPO**.

### Requisitos para optar a la **adjudicación**

- Mayor de edad.
- **Carecer de vivienda**, o que su domicilio actual no reúna las condiciones mínimas de habitabilidad o accesibilidad, o que su vivienda esté sobreocupada.
- **Condiciones económicas**:
  - El solicitante ha de acreditar en el último ejercicio fiscal unos ingresos anuales ponderados entre 9.000 € y 39.000 €.
  - **No se exigirán ingresos mínimos** a víctimas de la **violencia de género**.
  - Se establece un listón de 3.000 euros para las personas con movilidad reducida permanente.
- Las **personas extranjeras**, además de **cumplir** con los **requisitos** generales, deberán disponer de **autorización de residencia** de larga duración.
- **Preferencia** para aquellas **personas empadronadas** en Urretxu a 1 de diciembre de 2015 con carácter ininterrumpido durante un **mínimo de tres años**, que cumplan los requisitos.

### Baremación Conseguirán **más puntos**

- Cuantos **menos ingresos** tenga el **solicitante**.
- Cuantos **más miembros** conformen la unidad convivencial.
- Para los **empadronados** en **Urretxu** con carácter ininterrumpido durante **más de siete años**.
  - Tengan **necesidades especiales**:
    - Unidades **monoparentales con hijos** a cargo.
    - Titulares de **cuentas ahorro vivienda**.
    - **Personas separadas** con cargas hipotecarias.
    - Tener suscrito **contrato de alquiler público** o
      - Disponer de una **vivienda inadecuada**

La **baremación** tendrá por objeto establecer un **orden de prioridad** entre los **solicitantes**, confeccionándose asimismo una **lista de espera** que tendrá validez de **seis meses**.



# Montse Alkorta

Urretxu-Zumarragako **Ikastolako zuzendaria**

## "Arkitekturak **pedagogiara** egokitu behar du"

"Fronte ugari irekita" hartu gaitu Ikastolako zuzendari **Montse Alkortak**. Ikasturte hasiera, laster hasiko diren obrak, **50. urteurrena** eta zuzendaritzari egunero tokatzen zaizkionak.

Aurtengo **Santa Anastasia jaie-tako pregoia** gelditu zen Ikastolaren esku. "Herritik eta herriarentzat sortutako hezkuntza-proiektu bat eraiki eta abiarazteko" bat egin zuten guraso, irakasle, pasiotarrak eta bestelako kultur-eragileak. Era berean "haur eta gazte askoren heziketan izan da bidelagun **Ikastola**" azpimarratu zuten eta "iturri zaharreko ur berriz eguner-

*atuz*" Ikastola erronka berri baten aurrean kokatu baita, 50 urte bete ostean.

Duela lau urte eskola **berri** bat irudikatzen hasi zen **Ikastola**, "**hausnarketa estrategikoa izan zen**" azaldu du Montse Alkortak, "**hizkuntza komunitateko kide guztiak partaide izan ginen: guraso, ikasle eta langile**".

Orduan eraikinaren inguruko eztabaidan baino "pedagogian" jarri zuen "lehentasuna". Hau da, "*ze ikastola nahi dugu etorkizunean, ze ikasle nahi ditugun, bukatzen dutenean* **Ikastolan nolakoak** izatea nahiko genituzkeen eta hor-

*retarako zer egin behar **dugun**, galdera horietatik abiatur, markatu genituen erronka estrategiko batzuk*" adierazi du **Alkortak**.

### Sei **zuzendari**

**50 urteko** ibilbide honetan **Ikastolak sei zuzendari** izan ditu: José Martín Camino, Jesús Mari Iturrio, Iñaki Etxezarreta (Pasiotarra ez den lehen zuzendaria), Juan Zabaleta, Aitor Zubizarreta eta Montse Alkorta.



Hortaz, erreferenteak ziren ikastetxeak ezagutzen hasi ziren, Europan, Catalunyan eta Euskal Herrian bertan ere bai. *"Ikastolak mugimendu bezala beti izan dira aintzindari berrikuntzetan eta agian 50 urteurrenak hori erakutsi digu"*.

Horregatik aipatu du **Montse Alkortak** *"askotan esaten dugu berriro ez ote gauden hasierako puntuan, orduan zerbait berri egin zen, existitzen ez zena gizartean eta momentu honetan zerbait berria egin nahi dugu, eredu pedagogiko berria"*.

Horregatik Ikastolak urtero aukeratzen duen leloa, *Bidean* izango da.

#### **"Konfiantzaren pedagogia"**

Eredu berriaz galdetzerakoan, **Montse Alkortak** 'konfiantzaren pedagogia' aipatu du eta azaldu ere bai *"Ikastoletan martxan jarri den eredu pedagogiko berria da"*.

## **Urte hasieran hasiko dira lanak**

**Montse Alkortak** azaldu duenez, **Ikastolak urte hasieran lanak hasteko** asmoa du.

Bere esanetan, *"momentu honetan udaletxeen dagoen taldea, epe aldetik, oso lagungarria da ikastolarentzat"*

*Halere, kontuan hartu behar da "obrak lotuta daude Matxin-portarekin (Gurutze Santu), han lortzen dugun dirua hemen inbertitukodugu".* (Ikus 10.orria)

Horregatik bi **azpi-fase** finkatu dira, urte hasieran umeak ez dauden lekuaren arituko dira, **Pasiotarren beheko** gunean: haur eskola berria, administrazioa (idazkaritza, zuzendaritza), aretoa eta haur hezkuntzakoa egokitu (0-6).

Eta **bigarren fase batean**, kirol instalakuntzak, jatorrizko eraikina berreskuratzeko helburuarekin, eta ekaina bukaeran Ikastolan bertan hasiko dira pareta botatzen eta espazioak zabaltzen.

*Ikastola batzuk martxan daude eta gu bidean, formazioa jasotzen hasita gaude, bai familiak bai langileak ere, eta obrak lotuta egongo dira eredu pedagogiko horrekin".*

**Montse Alkortak** argi du *"arkitekturak erantzun behar dio pedagogiari"*, *"garai batean espazioak eskoletan itxiak ziren, eredu pedagogikoak berriak eskatzen duena da, apurtzea; ikasgunea ez da gela, ikastetxea baizik"*.

Hortaz, garbi dute berri-kuntzari heltzeko garaian "pedagogiak baldintzatu behar du arkitektura eta ez alderantziz", hori dela eta etorkizuneko Ikastolak marratzu dute "espaio berriak, irekiak, ikasleen arteko interakzioa ahalbideratuko duena, ikasle adin nahasketak egiteko aukera emango duena, kolorea lasaitasuna transmitituko duen espazioa, espazio garbiak ..."

Bere ustez *"ahalbideratu behar da adin ezberdinako ikasleen artean elkarrekin ikasteko aukerak eskaintza"*. Erronkari heltzeko prest daude irakasleak, *"gauzak beste era batera antolatu behar ditugu ikaslearen onurarako, betiere ikaslea gune izanda"*. *"Elkarrekintzan asko ikasten delako"* az-pimarratu du **Montse Alkortak**.

Horrela fase desberdinak finkatu ditu Ikastolak "Konfiantzaren pedagogiak haur hezkuntzari erantzuten dio, pertsonaren oinarriak hemen jartzen direlako. Zazpi urte arte nolabait pertsona nolakoa izango denaren oinarriak jartzen ari gara, hortan familia eta eskolak zeregin handia dute".

## **"Espazio berriak, irekiak, ikasleen arteko interakzioa**

**ahalbideratuko**  
du Ikastolak, **ikasle adin nahasketak**  
egiteko aukera  
emango duena"



Zuzendariak hizkuntza dekretuari ere heldu dio, konpetentzia hizpide. "Ikastola elkarrean bost markatzen ditu gure curriculmean". Helburua zera da, "bermatu egin beharko genuke ikasleak zenbait egoera jakinetan konpetentzia bereganatu duen, hau da, testuinguru ezberdinak eskaini behar zaizkio eta erakutsi behar du arrakasta lortzeko gai dela".

## EKI

Horretarako Ikastolaren elkarrean EKI materiala sortu zuen, Euskal curriculum-a konpetentzia eta integrazioaren pedagogia uztartzen duen projektua.

"Muturretatik hasi ginen, haur hezkuntzan eta goiko etapetan garbi zegoen zer lan egin behar genuen eta askotan markatu dugu Lehen Hezkuntzako 7-12 urte bitartean oso importantea da estrategia batzuk eskuratzeari ikasleei".

Bere hausnarketan, Montse Alkortak gizartea ere aipatzen du. Bere ustez "eskola eraldatu beharra dago". "Gizarteak Ikastolari edo eskolari eskatzen dio

*kanpoan gertatzen denari muzin egin.*

*Erantzun behar diogu gizarteak gure ikasleari eskatzen dion horri, gizarte ezegonkor horretan egoera berriei erantzuteko estrategia eskuratzeko* adierazi du.

## KiVa

Eta, beste arlo bati garrantzi handia eman nahi dio **Montse Alkortak**. "Oinarria da ikasleari eskaini behar zaiola ingurune seguru bat, konfiantzazko giro bat. Eskoletan eta gizartearen badugu oso erronka polit bat, eta da eskola jazarpena prebenitzeko programa".

Ikastolak KiVa du martxan, Finlandian abian jarri zuten programa eta portzentajea jaitsi egin da asko. "Ikaslea zoriontsua izan behar da, seguru sentitu behar da, lasai egon behar da ikasteko. Zazpi urterekin eman daitezke baztertze egoerak. Programa honen arrakasta da zazpi urterekin hasi direla hortaz hitz egiten".

## Kilometroak, 2018an

Urretxuko **Santa Anastasia** jaietan pregoia irakurri eta karroza ere atera zuen Ikastolak. Halere, 2017an ospatuko dira ekitaldi nagusienak.

Abenduaren 3an, **euskararen egunean**, hasiera eman zitzaion **ospakizun ekitaldiari**. **Gabon kontzertua** ere eskaninik dute eta hurrengo urtean helduko dira gainontzeakoak: liburua, gazteen kontzertua, e.a. Eta 2018an Kilometroak egitasmoa antolatuko du Ikastolak, horretarako "*datorren urtean antolatzen hasiko gara*" dio **Montse Alkortak**.

**"Eskola eraldatu beharra dago**, ezin dio kanpoan gertatzen denari muzin egin"



# Gizarte ekintza eta adinekoak

Gizarte ekintza arloaren barruan eragile eta kolektibo ezberdinekin lan egiten da, eta horietako bat adinekoak dira.

Zein da gizarte ekintza eta adinekoen arteko erlazioa? Zer zerbitzu daude beraien eskura?

## ZAHARTZE AKTIBOA

Nagusienek gjartean duten parte hartza bermatzea da beren premia, nahi eta gaitasunetara egokituz.

Horrela, **TIPI TAPA** paseoak an-tolatzen dira astero, ariketa fisikoa eta autonomia sustatzeko; eta **KALEKO GIMNASIOen** erabilera ere bultzatzen da, hauek berritu eta berrikuntzak azaltzeko ikastaroak eskainiz.

Aski ezaguna da Urretxuko **ER-RETIRODUNEN ETXEA** eta bertan egiten diren lantegi (erorketei aurre egitekoak, memoria lantzeakoak..) eta jarduera ludikoak: adinekoen astea, karta lehiaketak edo aurten sortutako aldizkaria hala nola.

Dena ez da erretirodunen etxeen egiten baina, **Gaztebideaneako** gazteekin batera belaunaldien arteko jarduerak egiten baitituzte.

## MENPEKOTASUNA DUTENAK


Menpekotasun fisiko edo psikologikoren bat duten haientzat ere zerbitzu ezberdinak eskaintzen dira, beren ongizatea bermatzeko, horretarako behar duten laguntza eskainiz; Eguneko zentroa edo Etxez etxeko laguntza.

**EGUNeko ZENTROAn** eguneko arreta eskaintzen da, astean zehar eta baita asteburuetan ere.

Erabiltzaileei laguntza integrala (otorduak, higienea, terapiak..) eskaintzen zaie, eta zentrura iristeko garraioa ere bai.

Familiei aldiz aholkularitza eta laguntza ematen zaie adinekoak etxeen era egokienean zain ditzaten.

**ETXEZ ETXeko LAGUNTZA** zerbitzua ere badugu Urretxun; etxeko lanak edota arreta pertsonalarekin eta higienearekin lotutako zereginetarako.




## HITZAK ZENBAKITAN

Erret. etxeko mantenua	20 500 €
Erret. etxeko jarduerak	14 500 €
Adinekoen astea	7 500 €
Tipi tapa	1 000 €
Euskadi Lagunkoia	600 €
Eguneko zentroa	540 500 €
Zentrora garraioa	133 700 €
Zentruaren mantenua	6 000 €
Etxez etxeko laguntza	132 000 €

**856 300 €**

Mantenua	26 500 €
Garraioa	133 700 €
Eguneko zentroa	540 500 €
Etxez etxeko laguntza	132 000 €
Jarduerak	23 600 €
Guztira	856 300 €



Mantenua	
Garraioa	
Eguneko zentroa	
Etxez etxeko laguntza	
Jarduerak	



# Santa Anastasia Jaiak 2016

## Likidazioa

TXUPINAZOA	<b>1.752,54 €</b>
GIZARTE EKIMENAK	<b>10.350,00 €</b>
ABELGORRI LEHIAKETA	<b>7.280,00 €</b>
HAURRENTZAKO EKINTZAK	<b>4.483,00 €</b>
KUADRILEN EGUNA	<b>3.897,48 €</b>
HERRI EKIMENAK	<b>66.806,58 €</b>
KONTZERTUAK	<b>19.341,60 €</b>
Hesian	<b>10.841,60 €</b>
Gozategi	<b>6.050,00 €</b>
Alaitasuna errondaia	<b>850,00 €</b>
Andonik mugitzen nau + DJ Tirapu	<b>1.600,00 €</b>
ZABALKUNDEA ETA DOKUMENTAZIOA	<b>8.215,00 €</b>
BESTE BATZUK	<b>4.986,22 €</b>
<b>Guztira:</b>	<b>127.112,42 €</b>





# Herri Ekimenak.

## Dirulaguntzak:

Lekaio kultur elkartea,	<b>3.869,84 €</b>
"Buruhandi eta erraldoi konpartsua"	
Herri kirol taldea, "Idi probak"	<b>2.923,85 €</b>
Lurra dantza taldea, "Folklore jaialdia"	<b>8.526,00 €</b>
Lizarriturri txistulariak, "Txistu kontzertua"	<b>5.919,59 €</b>
ZUGA, "txosnak"	<b>8.000,00 €</b>
Lekaio kultur elkartea,	<b>5.083,30 €</b>
"Euskal Jai goiza: artisaua eta jaialdia"	
Zuhaitzaren soinua kolektiboa "Txalaparta astea"	<b>4.402,61 €</b>
Zarraparra	<b>1.000,00 €</b>
Hip hop taldea, "Kontzertua"	<b>1.944,93 €</b>
"Gastronomi lehiaketa"	<b>3.610,83 €</b>
Karroza desfilea	<b>17.091,00 €</b>
Diru ekarpema kuadrilei	<b>7.150,00 €</b>
Idiak	<b>3.711,00 €</b>
Musika eta dantza taldeak	<b>4.510,00 €</b>
Ikastaroa, aurkezleak, bandeja	<b>1.720,00 €</b>
Argazkia , "Argazki rallya"	<b>900,00 €</b>
Zintzo Mintxo "Kantu afaria"	<b>1.816,75 €</b>
Iparragirre Balerdi Musika Tailerra "Dantzaldia"	<b>517,88 €</b>
Azpiegiturak (mahaia et aulkia)	<b>1.200,00 €</b>
<b>Guztira:</b>	<b>66.806,58 €</b>

## Presupuestos: 8,7 M € en 2017

### El Ayuntamiento analiza las 120 aportaciones a las cuentas

Durante octubre y noviembre el **Ayuntamiento** de Urretxu ha mantenido diversas **reuniones** con la **ciudadanía** con el objetivo de hacer un **presupuesto** 2017 participativo. En concreto, se han realizado 16 reuniones con 165 urretxuarras.

En sesión plenaria celebrada el 22 de diciembre, el Consistorio urretxuarras aprobó las cuentas para el 2017. **El presupuesto asciende a 8,7 M de euros**, un 8,7% inferior a la previsión del cierre del ejercicio 2016, debido

principalmente a una menor actividad urbanística. El Ayuntamiento destinará 481.000 euros (amortización+intereses) a hacer frente a varios créditos, no obstante, ha fijado unas **inversiones** por importe de **631.000 euros**.

En dicho proceso de participación, el Ayuntamiento de Urretxu **recibió** en primera instancia en el mes de octubre unas **85 propuestas**, sugerencias u observaciones de **mejora del municipio**.

Posteriormente a mediados de noviembre volvió a convocar otras siete reuniones con los urretxuarras **divididos por zonas**: Aparicio, Pagoeta-Labeaga, San Martín-Barrenkale, Aldapa-Alde Zaharra, Basagasti-Sorginzulo-Lilibaso, Santa Bárbara y Mundo Mejor y en las mismas se **añadieron otras 20 propuestas**, además de **otras 15 a través de encuestas**.

El equipo de gobierno ya ha dado **respuesta a algunas de ellas**, y estudia las demás con el resto de los partidos.



## Urretxu eta Schwarzenbruck, mende laurdena elkarrekin

Eta etorkizun  
osoa aurretik

2016ko uztailaren lehenengo asteburuan, Urretxu eta Schwarzenbruck herrien arteko Senidetzearen 25. urteurrena ospatu genuen Alemaniako herri honetan, Bern Ernstberger alkatearen gonbidapeni erantzunez.

Mende laurden igaro ostean elkarturik jarraitu nahi dugula aldarrikatu zen topaketan, nazioarteko arloan jokatzeko, gure arazo eta beharrei aurre eginez, eta gure artean adiskidetasun harremanak gero eta gehiago estutuz.

Gure herriaren nortasunaren adierazpen gisa ikusi du senidetza Urretxuk. Gure herriaren eta Schwarzenbruck herriaren arteko adiskidetasuna, lankidetza eta ulermenaren dira honen baloreak, eta horiek oinarri hartuta, senidetza lehen harria izango da esperientziak elkarrekin trukatzeko, arlo kulturalean, kirolean eta sozialean, eta elkarrekin aberastea beste

hainbat alorretan, tokiko eta eskualdeko garapen sozioekonomikoa helburu nabarmen gisa hartuta.

Senidetze hauek konpromiso bikoitza eskatzen dute: era-kundeena eta herritarrena. Beste hitz batzuetan esanda, herritarren parte-hartze aktiborik gabe, senidetzeak ezin du arrakastarik izan.

Alfonso Cuesta, Ramon Arbizu, Albrecht Frister, Norbert Reh, Pello Gonzalez eta urte guzti hauetan zehar elkartruke jardueretan parte hartu duten gazte guztiak gogoan ditugu. Beraien etengabeko lan eta konpromisorik gabe ez litzateke urteurrenik ospatuko. Alde horretatik, Lurra Dantza Taldeari eskerrak ematea ere badagokigu, udal ordezkarri eta beste zenbait urretxuarrekin batera senidetzearen 25. urteurrena ondo baino hobeto girotu baitzuten.

Bestalde, gure senidetzeak epe luzeko konpromisoa irudikatzeko egoki itorri zen topaketa, epe motzeko proiekturen bat edo beste gauzatzeko lankidetza xume batetik haratago. Bizitza politikoko aldaketen eta alde bat edo besteari eragin diezaioketen zaitasun iragankorren gainetik dago.

Epe luzerako konpromisoa izanik, senidetza berraztertu egin behar da noizbehinka, beti ere momentu bakoitzeko beharretara egokitzen eta bere bizia eta dinamismoa ziurtatzeko. Alde horretatik, 25. urteurren hau hartu-eman honetan sakontzeko pizgarria izan zen guretzat, hemendik epe labur batetara izaera ekonomikoko esparruetan ere jarraipena izango duela izanik gure nahia.

# Berriak



## Urretxu sustituye el contenedor verde por uno gris que se abre lunes y viernes

El Ayuntamiento de Urretxu junto con la Mancomunidad de Sasieta ha procedido a sustituir el **contenedor verde** de basura por uno de **color gris** cerrado que se abrirá **dos veces por semana** mediante una tarjeta.

El **objetivo** de esta **medida**, aprobada por unanimidad en el Consistorio urretxuarrar, es **dar un salto** del 46,1% en las **tasas de reciclaje** y pasar al **70%**.

Se podrán **depositar residuos** que **no son reciclables**.

El **objetivo** es llegar al **70% de reciclaje** y además se prestará un **servicio personalizado a comercios**.

El **contenedor gris**, en el que **únicamente** se podrán **depositar residuos no reciclables**, se abrirá únicamente dos veces por semana: los **lunes y viernes** en horario **de 00 h. a 24 h.** con la **misma tarjeta** que se utiliza para recoger las bolsas compostables, con la que posteriormente se abrirá también el contenedor marrón del orgánico.

Por lo tanto, el **sistema de recogida** de residuos en Urretxu está **com-**

**puesto por cinco contenedores:** el **verde** para el **vidrio**, el **azul** para el **papel y cartón**, el **amarillo** para los **envases**, el **marrón** para el **orgánico** y el citado **gris** para el **resto no recicable**.

El sistema establece también un **contenedor especial para los pañales** que se podrá utilizar en cualquier momento.

### Personalizado a comerciantes

El **contenedor gris** cerrado estará destinado principalmente a las **viviendas** y a **pequeños comercios** que generan poca cantidad de "resto".

A los **comercios** que **más generen** se les **realizará** una **recogida personalizada de fracción "resto"** mediante **contenedores grises individuales**.

Aquellos **comercios** que **generen**

**mucho orgánico** se les brindará la oportunidad de **disponer** también de una **recogida personalizada** mediante **contenedores marrones individuales**.

Los **comercios** han **recibido** la visita de un **técnico medioambiental** de la Mancomunidad Sasieta para informarle del **nuevo sistema de recogida** y evaluar el material necesario para dar comienzo inmediato con la nueva recogida.

# Berriak

Urretxu estudia realizar una completa **remodelación** de las **piscinas**



Debido a una **constante pérdida de agua**, las piscinas municipales de Pagoeta de Urretxu tienen que someterse a una importante **obra de reparación**, lo que ha originado una reflexión en el equipo de gobierno municipal.

Existen **varias opciones** y dependerá de las **posibilidades presupuestarias**.

Dados los usos actuales, en una piscina de tamaño olímpico la **zona central** está prácticamente **desaprovechada** y entre las diferentes alternativas, siempre

cumpliendo con la normativa a la que está sujeta la instalación, el **Ayuntamiento** está **estudiando** configurar una piscina que atienda las **necesidades** del público **más joven** para lo que rebajaría la altura del vaso en uno de los lados y se plantea también dotar de **espacio para juegos**, todo ello **sin** que vaya en **perjuicio** de aquellas **personas** que prioricen el nado.

Al tratarse de unas piscinas con más de **25 años de existencia** y al tener que afrontar una **costosa reparación** en costo económico y de tiempo de ejecución, el **Ayuntamiento** está **barajando** una completa **reforma** de las **piscinas** que afectaría a la propia **configuración del vaso**.

Teniendo en cuenta que las piscinas de Pagoeta dan servicio **también a los municipios de la comarca**, el Ayuntamiento de Urretxu entiende imprescindible la  **implicación de la Diputación Foral de Gipuzkoa** en esta inversión, que puede ser relevante.

En este sentido, el **alcalde de Urretxu**, Jon Luqui, ya ha mantenido una **reunión con la directora foral** de Juventud y Deportes, Goizane Álvarez, al objeto de recibir información del plan foral de infraestructuras deportivas y de explicar las **necesidades del municipio** en esa materia.



El **97%** de las **encuestas** reflejan la **necesidad** de **renovar** las **piscinas**

En este proceso, el **Ayuntamiento** quiso **testar la opinión** de los y las **urretxuarras**, usuarias o no de este servicio, y elaboró una **encuesta** para recabar las aportaciones de las personas interesadas. Dicha encuesta se pudo llenar vía internet a través de la página web municipal o mediante las redes sociales, y se habilitaron impresos en papel en dependencias municipales que pudieron ser depositados en los buzones habilitados.

Más del **82%** de las **472 personas** que **rellenaron**, vía internet o en papel, la encuesta sobre las piscinas de Urretxu consideran **"prioritario"** la **reparación y renovación** de esta instalación municipal y más del **15%** "lo cree importante pero no prioritario".

De las **472 personas**, la mitad son **urretxarras**, el **45%** **de Zumarraga** y tres de cada cuatro es usuario **habitual u ocasional**.

**Solo un 2,43%** no lo entiende así.

La **mayoría de las personas** que han llenado la encuesta más que nadar disfrutan de la instalación y de la compañía.

Los usuarios en la piscina **consideran que el agua está muy fría** y que los dos vasos están muy separados y echan en **falta algún tipo de juego**.

Además, entienden que **se puede mejorar el estado de la hierba**, ven demasiado talud en algunos sitios, creen necesaria una **ampliación del solárium** y piden más **mesas o hamacas**.

En relación a la **cafetería**, piden **ampliar la terraza** y sobre los precios hay diversidad de criterio. Cuestionados por las instalaciones (baños, duchas, etc.), las encuestas revelan un amplio margen de **mejora en limpieza**, en renovación integral y ampliación, zonas resbaladizas y agua caliente.

Entre las aportaciones en las preguntas abiertas destacan, además de la **queja por el agua fría**, las dimensiones de los vasos en el sentido de que no hay equilibrio dado que hay quien cree que la **piscina pequeña es demasiado reducida** y la grande ocupa un gran densidad.

Sobre el **solárium**, se pide **más zonas de sombra** y rebajar el talud, **mejorar la limpieza y mantenimiento** de los baños y vestuarios, apostar por las **instalaciones deportivas**, un **carnet único entre Urretxu y Zumarraga**, un carné solo de verano y **ampliar el parking** tanto para coches como para bicicletas.

# Kirola

Xabier Chico, Aritz Egea, Xabi Erostarbe, Ainhoa Sanz, Iker Serrano eta Imanol Garciandia, gorenean

## Xabi Chico,

Entrenatzailea:

Udan, **Espaniako 16 urte azpiko selekzioarekin** Eurokopa irabazi du Polonian. David Soria hautatzailearen laguntzaile izan zen Xabier Chico, handik hilabete batzutara **Añares Rioja** ISB taldeko entrenatzaile berria izatera pasa zelarik.

Azkoitiko **taldeak emakumezkoen** bigarren liga **nagusian** jokatzen du. Goierrin makina bat urte igaro ostean, **Azkoitian mutilekin** ere aritu zen Chico.



## Iker Serrano,

Eskubaloい jokalaria:

Almerian, Arraten, Sagunton eta Frantziako Tremblay eta Mulhouse taldeetan urteek **eman** ondoren, **32 urte** dituela **Bidasoak** fitxatu zuen denboraldia behin hasita baina **urretxu-arrá** fin dabil Irungo taldearekin.



Argazkia: Carlos Mediavilla

## Ainhoa Sanz,

Euskadiko Kros txapelduna

27 urteko urretxuarrak Euskadiko **Kros** txapelketak lortu zituen **aurten Lasarte eta Abadion**, kros laburrean eta kros luzean, alegia.

**Ainhoa Sanz**, Goierrri Garaia taldeko korrikalariak 2014ean lortutako errepikatu du, orduan kros laburra **Amurrian** eta kros luzean **Laudion**. 2015ean hirugarrena gelditu zen kros luzean Elgoibarren.

Aurten ere ondo hasi da urretxuarrak, **Irun eta Ordizian garaipenak** eskuratzuz.



Argazkia: Aspe

## Erostarbe,

Aspen

2015eko azaroaren 27an **egin zuen debuta profesionalan** 22 urteko Xabi Erostarbe Arozena urretxuarrak.

Aspe enpresako atzelariak Santa Lutzi eguna iritsi arte 34 partida jokatu ditu profesionalan, horietatik **18 garaipen** lortuz. Iaz Elortegi Elortegi Oroitzzarreko eta Dinastía Etxabeko **Txapelduna** izan zen eta 2014ean **Euskal Herriko Elite Txapelduna**.

## Aritz Egea,

Munduko 11:

Sky Series, **Munduko Mendi lasterketa txapelketan** hamaikagarrena izan da sailkapen nagusienan Euskal Selekzioarekin Aritz Egea. Egutegiko zortzi frogetatik, hiru bukatu ditu urretxuarrak Italiako **Dolomiteten, Andorran** eta Italiako **Limone Extreme**; Zegama-Aizkorrikoan arazoak izan zituen. Bestetik, **Monte Perdido mendiko markarik onena** ezarri du aurten Aritz Egeak. Ternuako korrilakariaik 4 ordu 24 minutu eta 31 segundu behar izan zituen Monte Perdido igo eta jaisteko, aurreneko marka 20 minututan hobetuz.

## Imanol Garciandia,

eskubaloiko Txapeldunen ligan

Urolako eskubaloiko taldean urteak eman ondoren, Elgoibarretik Logroñora egin zuen salto Imanol Garciandia. Naturhouse La Rioja taldearekin bigarren denboraldia burutzen ari da 21 urteko urretxuarrak.

**Europako Txapeldunen ligan** 11 gol sartu **ditu** 2016an eta 2017an oso erronka garrantzitsuak izango ditu goreneko lehiaketan.

# Kaixo txiki


## Marrazteko



## Sudoku

□	+	△		□	△
				*	
*			*	+	
				○	
	○		△		○
			*	*	○

## Labirintoa



## URRETXUKO UDAL LIBURUTEGIA **Kapitulu berria**

2017ko urtarriletik aurrera liburutegiak  
ordutegi zabalagoa izango du.  
**goizez ere** irekiko dugu  
**11:00etatik 13:00etara.**  
**Arratsaldez 16.30rako** irekiko dugu  
**20:00etan** ixteko  
**Wifi zerbitzua:** Ekintza berriak

### Zerbitzuak

Ikusentzutekoak  
Ordenagailuak  
Wifi  
Egunkari eta aldizkariak  
Liburuak  
Maileguak  
Haur gunea

### Ekintzak

Interesgunea hilera  
Hitzaldiak  
Liburu aurkezpenak  
Haur ekintzak, ipuin saioak, tailerrak  
Bibliopiszina  
Biblioparkea  
Euskerazko liburuuen irakurketa eta lanketa  
**Berri berria:** Munduko emakumeen  
literaturari buruzko irakurketa eta lanketa

